



قافلة بين سينمائيات

ZINEMAGILEEN ARTEAN

Emakumezkoek egindako zinema 11. Karabana

Maiatzaren 23tik 27ra

Golem Zinemak. Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao

KCD
Kultura Communication Desarrollo
ONGD
www.kcd-ongd.org

CINE INVISIBLE
FESTIVAL INTERNACIONAL
FILM SOZIALAK 2022 BILBAO

E
GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERROTHOLAN JUSTIZIA
EN QUATRE POLITIKARAKO SALA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Bizkaia
Bizkaia erkidegoa
diputazioa foral

klaketa
arabe
الكلاكة

golem alhóndiga

AZKUNA
ZENTROA
ALHONDIGA
BILBAO

(H)ABIAN

"ZINEMAGILEEN ARTEAN"

11. KARABANA

Dena prest dago 2022ko «Zinemagileen artean» Emakumeek egindako 11. Zinema Karabanarako.

Emakumeek zineman duten kristalezko sabaia berehala egiazta daiteke jaialdi ezagun gehienetan: epaimahaia-
ren osaeran, aukeratutako lanetan, sari eta izendapene-
tan, filmen finantzaketan eta abar. Eta, hain zuzen ere,
horixe da «Zinemagileen artean» Emakumeek egindako
11. Zinema Karabanaren asmoa: kristalezko sabai hori
apurtzea. Zentzu horretan, Klaketa Árabe ekoiztetxeak
eta Kultura, Communication eta Desarrollo KCD GGKE
garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak aliantza
sendoa sinatu zuten duela 11 urte, industria zinema-
tografikoak gizonen zuzendutako filmekiko inklinazio
handia duen mundu horretan emakume zinemagileak
ikusgai egiteko.

Karabanaren 11. emanaldi honetan omenaldi txiki bat
egin nahi diogu fikziozko film luze bat zuzendu zuen
lehen emakume kubatarrari, Sara Gómez zinemagileari
(1942-1974); izan ere, bere «De cierta manera» filmare-
kin —duela gutxi birmasterizatu da— irekiko dugu ka-
rabana. Lan horrek argi eta garbi islatzen ditu iraultzaren
garaipenaren ondoren auzorik baztertuenak desagerra-
razteko egin ziren lehen ahaleginak. Hizketaldia Marilyn
Solaya zinema-zuzendari kubatarrak dinamizatuko du.

Bestalde, Anaís Taracena zuzendari guatemalarraren es-
kutik, espioitza eta intrigazko istorio batean murgilduko
gara, Guatemalako garairik errepresiboenetako batean.
Celina Escher zuzendari salvadortar eta suitzarrak, berriz,
abortuak El Salvadorren bizi duen kriminalizazioari bu-
ruzko istorio lazgarri bat erakutsiko digu. Eta Silvia Voser
zinema-zuzendari suitzarraren filmari esker, aurrez aurre
ezagutuko dugu Ken Bugul idazle eta aktibista senegal-
darra, emakume afrikarren literaturako ahotsik esangu-
ratsuenetako bat, inor axolagabe utziko ez duena.

Azkenik, Catherine Corsini frantziarrak Frantzia gaurko-
tasun handikoa den istorio bat azalduko digu bere fik-
zioaren bidez, eta Neda Hegazi gazte egiptoarrak, bere
aldetik, hainbat emakumek Kairoko sorkuntzako doku-
mentalaren tailerrean egindako film laburrak proiektu-
tuko ditu. Klaketa Arabek eta KCD GGKEk antolatua da
tailerra, euskal lankidetzaren babesarekin.

Egiak hauskor diren garai hauetan, Gizarte Eraldaketara-
ko Komunikazioa ezinbestekoa da guztion onerako.

Egizu bat «Zinemagileen artean» Emakumeek egindako
Zinemaren Karabanarekin!

J. Carlos Vázquez Velasco

Zuzendaria

Kultura Communication Desarrollo "KCD" GGKE

Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinen Nazioarte-
ko Jaialdia

"ZINEMAGILEEN ARTEAN" 11. KARABANA

Egunak: Maiatzak 23tik 27ra

Lekua: Golem Zinemak - Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao

Saioak: 17:00 / 19:20 / 21:30

Prezioa: 2,70 € saioko

EGITARAUA

23 ASTELEHENA

17:00, 19:20, 21:30



19:20. Gonbidapena dutenentzako saioa.

Webgunarean bitartez: www.kcd-ongd.org

Aurkezleak: KCD GGKEa; Amal Ramsis Egiptoko dokumentalista, zinema-zuzendari eta Emakumeek egindako Zinemaren «Zinemagileen artean» Karabanaren sortzailea, eta Marilyn Solaya zuzendari kubatarra.



• MAHSHI

Emakumeek egindako sormenezko dokumentalen tailerra, Kairo, Egipto, 2021, 10 min. Jatorrizko bertsioa arabieraz; azpigituluak gaztelaniaz.

• DE CIERTA MANERA. Sara Gómez

Dokumentala. Kuba, 1974, 78 min. Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz.

1977ko film garrantzitsuenetako bat, prentsa zinematografikoaren Kubako elkartearen arabera

Miraflores auzoa 1962. urtean eraiki zuten gerora bertako bizilagun izango zirenek. Iraultzaren garaipenaren ondoren txiroen auzoak desagerrarazteko helburuarekin egindako lehenengo ahaleginen emaitza da. Auzo horietan bizi zen gure biztanleriaren antzinako sektore marjinalaren zatirik handiena. Film honetan, aktoreekin batera benetako pertsonaia batzuek ere hartu zuten parte. Hala, dokumentua eta analisia fikzioarekin uztartzen dituen tranpa da. Alde batetik, zenbaitek betikotu nahi dituzten marjinalismoaren kultura-ohitura zaharrak daude, eta, bestetik, bizitzaren kontzepzio berria; filmak agerian uzten du bien arteko tirabira.

24 ASTEARTEA

17:00, 19:20, 21:30



19:20. KCD GGKEak eta Carla Molina.

KCD GGKEk aurkeztutako saioa.

Parte-hartzaileak: Carla Molina «El Silencio del Topo» dokumentaleko argazki-zuzendaria, eta Neda Hegazi, dokumentalista egiptoarra, El Cairoko Emakumeek egindako sormenezko dokumentalen tailerreko film laburrak aurkeztera etorriko dena.



- **THE ROAD**

Emakumeek egindako sormenezko dokumentalen tailerra, Kairo, Egipto, 2021, 6 min. Jatorrizko bertsioa arabieraz; azpтитuluak gaztelaniaz.

- **EL SILENCIO DEL TOPO. Anaïs Taracena**

Dokumentala. Guatemala, 2021, 91 min. Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz; azpтитuluak ingelesez.


Tim Hetherington Award sariduna Erresuma Batuko 2021eko Sheffield Doc/Fest jaialdian; Dokumentalik

onenaren saria «Nuestra América» kategorian 2021eko DocsMX jaialdian; Gilda Viera de Mello saria Genevako Giza Eskubideen Nazioarteko Zinema Jaialdian, eta Dokumentalik onenaren zilarrezko Biznaga saria 2022ko Malagako Zinema Jaialdian.

70eko hamarkadaren bukaeran, «El topo» esaten zioten Elías Barahona kazetaria Guatemalako gubernurik zapaltzaileenetako baten bihotzean infiltratu zen. Gaur egun, ohiz kanpoko istorio horren bilaketak arrakalak ireki ditu herrialdearen isiltasun-horman.

25 ASTEAZKENA

17:00, 19:20, 21:30



19:20. KCD GGKEak, Celina Escher zuzendari suitzar-salvadortarrak aurkeztutako saioa.

* Zeinu-hizkuntzako interpretearen zerbitzuarekin.

• I LOVE YOU, I HATE YOU

Emakumeek egindako sormenezko dokumentalen tailerra, Kairo, Egipto, 2021, 7 min. Jatorrizko bertsioa arabieraz; azpigituluak gaztelaniaz.

• FLY SO FAR. Celina Escher

Dokumentala. El Salvador, Suitza, 2021, 89 min. Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz eta ingelesez; azpigituluak gaztelaniaz.

Erdialdeko Amerikako eta Karibeko film luzerik onenaren saria 2021eko Costa Ricako Nazioarteko Zinema Jaialdian, Epaimahaiaren saria Iberoamerikako filmen kategorian Seattle International Film Festivalen, Epaimahaiaren saria Bruselako Festival des Libertés jaialdian.

Fly So Far filmak askatasuna berreskuratzeko Teodoren eta 17en borroka jasotzen du. Abortua kriminaliza-

tuta dagoenez, 30 urteko espetxealdia ezarri diete larrialdi obstetrikiko baten ondorioz. Haien testigantzek eta kasuek agerian uzten dute Estatuak emakumeen aurka erabiltzen duen indarkeria, baina baita erresilientzia kolektiboa, elkartasuna eta ahizpatasuna ere.

26 OSTEGUNA

17:00, 19:20, 21:30



19:20. KCD GGKEak, Silvia Voser zuzendari suitzarrak eta «Ken Bugul, Personne n'en veut» dokumentalaren protagonista den Marietou Mbaye idazle senegaldarrak aurkeztutako saioa.



* Aldi bereko itzulpen-zerbitzua eta zeinu-hizkuntzako interpretea egongo dira.

- **KEN BUGUL, LA QUE NADIE QUIERE. Silvia Voser** Dokumentala. Senegal, Suitza, Frantzia, 2013, 62 min. Jatorrizko bertsioa frantsesez; azpigituluak gaztelaniaz. Kan Bugul idazle senegaldarra da, eta Afrikan bizi da, bere arima bertan sustraitua baitago. Ken Bugul estiloa da. Lanean eta bizitzan. Energia da, eta askatasuna maitatzea. Eleberriz eleberri, bere bizitzaren koadroa marrazten du, emakume gisa, bere amodioak, atsekabeak eta bere kontinentearen eta Mendebaldearen arteko harremanak. Guztia dira topaketak, harremanak, txinpartak eta edertasuna. Gure jatorria edozein dela, mundu honetan han edo hemen bizi garela, haien irria gure irria da, haien malkoak gure malkoak, haien itxaropenak geureak. Distira bera dute, zapore gazi berbera, freskotasun bera. Idaztea, Ken Bugularen esanetan, zentzumenak liluratzea da, eta zentzumenek ez dute kolorerik.

- **DRUMS**

Emakumeek egindako sormenezko dokumentalen tailerra, Kairo, Egipto, 2021, 12 min. Jatorrizko bertsioa arabieraz; azpigituluak gaztelaniaz.

- **LA FRACTURE. Catherine Corsini**

Fikzioa. Frantzia, 2021, 98 min. Jatorrizko bertsioa frantsesez; azpigituluak gaztelaniaz.

Bigarren mailako aktorerik onenaren saria 2021eko Cesar sarietan, urte bereko Cannesko zinemaldiko sekzio ofizialean ere saritua.

Raf (Valéria Bruni Tedeschi) eta Julie (Marina Foïs) euren arteko bikote-harremana haustekotan dira. Jaka Horiek protesta-ekintza handi bat egin dute Parisen, eta arratsalde horretan larrialdi-zerbitzu batean daude biak, ito-larriak jota. Zaurituta eta haserre dagoen Yann (Pio Marmaï) manifestariarekin egingo dute topo, eta elkartzeko horrek haien uste sendoak eta aurreiritziak suntsituko ditu. Kanpoaldean, egoera larriagotu egingo da eta ospitaleak atek itxi beharko ditu. Bertako langileak lanez gainezka egongo dira. Gaua luzea izango da...